

2026KO URTARRILAREN 12KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita seiko urtarrilaren 12an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 99 zenbakidun zerrenda, BERREHUN ETA HOGEITA BI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMAR euro ETA BI zentimokoa (222.730,02 €), bere espedientearen dagoena, onartzea erabaki da.

II.- LAN ARRISKUEN PREBENTZIO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA (GEZ).-

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2022-12-14ko FA-GO-2022-1958 Foru Aginduaren bidez, Kontratazioen Zentralaren bidez, espedientearekin bat egin zuten foru eta udal erakundeentzat "LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA" kontratatzeke Esparru Akordioa, (QUIRON PREVENCIÓN SLU) burutzea ebatzi zuen, hasieran bi urterako eta beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2024-12-27ko datan emandako FA-GO-2004-2630 Foru Aginduaren bidez, esparru akordio honen bigarren luzapena onartu zuen.

Orain, 2025-12-17ko datan emandako FA-GO-2025-2457 Foru Aginduaren bidez, esparru akordio horren lehen luzapena onartu du.

Honen aurrean Lazkaoko Udalaren eta QUIREON PREVENCIÓN SLU enpresaren artean izenpetutako kontratuaren urte beteko lehen luzapena onartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

III.- IBILGAILUEN ASEGURUAREN KONTRATUAREN ESLEIPENA (GEZ).-

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kontratazioen Zentralaren bidez, ZURICH INSURANCE EUROPE AG, SUCURSAL EN ESPAÑA enpresari esleitu dio espedientearekin bat egin duten foru eta udal erakundeentzat ibilgailuen aseguruia kontratatzeke esparru-akordioa.

Udal teknikariaren proposamena: Lazkaoko Udala erakunde horietako bat izanda, eta ibilgailuen aseguru beharrezkoa duenez, kontratua ZURICH INSURANCE EUROPE AG, SUCURSAL EN ESPAÑA esleipendun enpresari esleitzea eta kontratua formalizatzea proposatzen da ezarritako baldintzen arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

IV.- LAZKAOKO UDALAREN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UDAL PLANGINTZA 2025-2027 PLANA.-

2025eko ekainaren 10ean Berdintasun Batzordean aurkeztutako eta landutako "Lazkaoko Udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plangintza 2025-2027" plana onartzea.

2025eko abenduaren 15eko Gobernu Batzordean datorren gobernu batzorderako uztea erabaki zen.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio, abstenitu egingo direla gaia ez delako landu eta ez delako ekarpenik egin.

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) dio, Hezi2derek Laxia eta Leirerekin landutakoa dela.

Alkateak dio, batzordean ekainean aurkeztu zela eta ordunik ekarpenak egiteko aukera izan dutela.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), Lazkaoko udalaren emakume eta gizonen berdintasunerako udal plangintza 2025-2027 plan hau onartu egin du.

V.- LAZKAOKO BENEDITARREI EKARPENA.-

Lazkaoko Beneditarren Fundazioari Lazkaoko udalaren 2026. urteko aurrekontuan aurreikusitako diru partidatik 23.000 €ko ordainketa egiteko proposamena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

VI.- KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Kantaka.-

Kantaka abesbatzaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Lehen ordainketa %60, hau da 3.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 481.05.334.00 partidatik ordainduko da.

Goierriko Komunikabideei.-

Goierriko Hitzari eta GITBri, bakoitzari, 7.608,75 € ordaintzea onartu da, dagokion dirulaguntzaren 1go zatia.

Dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 471.01.491.00 eta 471.02.491.00 partidetatik ordainduko dira.

Bakuntza.-

Bakuntza eta Lazkaoko udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean eta 2026. urteko aurrekontuan aurreikusitako diru partidatik 1.000 €ko ordainketa egiteko proposamena.

Dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 481.01.231.60 partidatik ordainduko da.

Aurrerantzean, Gizarte Zerbitzuetatik egitea proposatzen da.

Lazkaoko Musika Banda.-

Lazkaoko Musika Bandaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Lehen ordainketa %60, hau da 3.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 481.07.334.00 partidatik ordainduko da.

Antzar Konpartsa.-

Antzar Konpartsaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Lehen ordainketa %60, hau da 3.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 481.10.334.00 partidatik ordainduko da.

Oin Arin.-

Oin Arin dantza taldearen eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 12.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Lehen ordainketa %60, hau da 7.200 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 481.01.334.00 partidatik ordainduko da.

Suthai Batukada.-

Suthai Batukadaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Lehen ordainketa %60, hau da 3.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 481.06.334.00 partidatik ordainduko da.

Zawopi.-

Zawopiren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 10.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Lehen ordainketa %60, hau da 6.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 481.09.334.00 partidatik ordainduko da.

VII.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Erakusleiho lehiaketa.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko gabonetan burututako Erakusleiho Lehiaketaren kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte udalera eta ondorioz dagokien merkatariei lehen ordainketa egitea proposatzen da.

Guztira 170 €

VIII.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

Lazkaoko Musika Eskola.-

Lazkaoko Musika Eskolaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako jarduerak aurrera eramateko 78.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, lehen %50, hau da 39.000 €, ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2026ko aurrekontuaren 481.02.326.00 partidatatik ordainduko da.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez dago galderarik.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamalau direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.